

"¡ Agur !" (Arrillaga Baserriari)

POR MATXIN LABAYEN

Or zegon tente tente, erne, txuri-txuri, Arrillaga Baserri edo mendietxea, Uzturren zaindari.

Zuloan zegon erri beltz ta otsdunarekin ezer ez zuan nai ta arto ori, zelai orlegi, bidetxo okertu ta zuaitz zar tartean egin zun bere kabia. Alde batetik (begi asko zituen gure baserriak). Uzturre aldera jotzen zun— bestetik Txindoki arkaitz more borobil izugarri aldera.

Erniozabal abstraktoa bai ere pixkat ikusi. Geizean... aur jaiio berria ematen zun bere margo berri ubelakin.

Eguardian, emakume gazte ezkongaiá — ain txuri ain dizdiratsu. Ilunabarrean, atso ospetsu arrigarria gorri eta urrez jantzia. La Egoera bakoitzak soñeko ez berdiñ apana eskeini.

Udaberriak orlegia— Udarak, oria— Udazkenak laranja— Nequak zuria. Baserrien inguruak noski aldaketa bikaiñak— izaten zitutzen. Bai arto, bai zuaitz zelai bidetxo eta mendiak.

Denekin itz egiten zuan, ixil— izilik, umilki— umilki—. Orain errekakin, gero txoriekin edo Aprika aldera zijoaizen usoarekin— (Oiekin kantari noski) bai ta— ere itxaso urrun urdiñ, zahaleko antxetekin. Eta nola ez artalde ta artzalekin?

Ardi apal ta artzai sendoak ziran bere lagun obeenak ta Uzturre aldera igotzen ziranean gure baserriak azkar erakutsi bide labur ta onena baso illun— itsaltsutik zijoana! A zer denborak— paregabeak— atsegiñ— paketsuak— orlegiak— betiko joanak!

Elurrakin... elur txuriekín Jaiotz txiki bat zirudin, ikullukin ta guzti! Ta txori gaizoantzat—ez zan aterpe txarra— bero beroa otzez ez iltzeko.

Ta zeru beltzan, izar dizdiratsuak ez al ziran izotz motak? Bañan orain — nere olako leiotik begiratzten detenian— (mendi aldera noski) paper zarrak— susmo txatxuak— alde batera utzita— negar egiteko gogua etortzen zait. Or dago nere aurrean, gure baserri zarra— xeatuta, puskatuta— txiki— txiki eginda— arkaitz aurka joan dan ontzi bat bezela. Ontzi bat bezela bai... ipuiko ontzi bat bezela, itxaso orlegian ondatua.

PYRENAICA

Egizko ontzia izan ba zan bere masta ta gutzi, egizko itxasoa musker edo urdiñarra— beti asarre— apar zuri ertze amaige ta arkaitz zorrotzekin— beti marmarrean, bere usai bereziakin, zer poza denentzat! Bañan ori ezin... Zer egingo degu! Ametz ederregia da! Malko beroak bota— ixuri ta betiko agurra eman Arrillaga baserriari! Antzi goxo itun batekin!

Gure Erria— Euskalerria, eta onekin amaitzen det nere lantxo labur au— laburra, susmur bat bezela?— ez al dijoa arkaitzen aurka txantxetako ontzia bezela? Berri gose— egarria ona da— bañan neurriakin— dena bezela. Ta neurri ori ez al degu galdu?

Guk degu erantzuna— Itxaropenez beteo noski — Ori beti, bai, Itxaropena.

Gure askatasuna — egizkoa noski— gure Aberrian degu— gure Etxean, ez kampoan— eta emen arkitu bear degu.

